

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### **Udalbatzako kideen erabateko arduraldia. Ordainsariak. Udal Talde Politikoentzako diru kopuruak**

Toki Autonomiaren Europako Kartako 7,2. artikulua xedatu zuen udal ordezkarien estatutoak segurtatu behar duela euren agintaldia egikaritzea era librean, ahalbideratuz eta baimenduz euren agintaldia dela eta sortutako gastuei aurre egiteko finantza konpentsazio egokia jasotzea, hala nola burutzen zuen lanpostu batengatik ordainketa edo irabazien galerarena ere eta dagokion gizarte segurantzaren estaldura eskubidea ere.

Hortaz, apirilaren 2ko Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 75. artikulua aldatu egin zen, bai apirilaren 13ko 11/1999 Legearen bidez, baita abenduaren 29ko 14/2000 Legearen bidez ere, Europako Kartako edukien aurreikuspena jasotzen dituztelarik eta Toki Erakundeetako kide hautetsien ordainketa erregimenean aldaketa garrantzitsuak barne-tatuta geratu direlarik.

Horren ondoren, Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak nabarmenki aldatu du tokiko erakundeei aplikagarri zaien arau-esparrua. Lege horretan EA Erako hiru espezialitate-klausula jaso direlarik Foru lurraldeetako eskubide historikoekin nahiz Autonomia Estatutuarekin bat egiteko, eskumenak dituzten erakundeen jarduna zehazten da.

Ahalmen horiek erabilita, Arabako Batzar Nagusiek otsailaren 11ko 4/2015 Foru Araua eman zuten, Arabako Lurralde Historikoan neurriak aplikatzearen, arrazionalizazioaren eta iraunkortasunaren inguruko foru-berezitasunari buruz. Foru Arau horren 4. artikuluan, ordainsari- eta bertaratze-kontzeptu guztiengatik tokiko erakundeetako kideek jaso ditzaketen guztirako gehie-nezko diru kopuruak ezarri ziren (zerbitzu bereziak ematen ari diren karrerako funtzionarioei dagozkien hirurtekoak salbu). Nahiz eta Auzitegi Gorenak ezagutu egin duen 4. Artikulu hori (677/2019 Epaia, maiatzaren 29koa), xedapen zatia ezin zaio aplikatu Audio udalerriri daukan biztanle kopuruaren arabera dagokion biztanleria-tarteari.

Bestalde, apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak arautzen du gai hau 31, 32, 33 eta 34. artikuluetan; eskubide ekonomiko batzuk xedatzen ditu eta Osoko Bilkuraren erabaki hau hartzeko oinarri izan behar diren kontzeptuak arautu.

Aurreko guztia kontuan hartuta, aipatutako arauak jarraikita interpretatu beharko da Udal Antolamendurako Araudiaren 13. artikulua.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 1985/7ko Legearen 22. artikulua emandako ahalmenak erabiliz, osoko bilkurak hau

#### EBATZI DU

LEHENENGOA. Alkate-udalburua arduraldi eskusiboarekin jardungo da, eskubide hori baita-gokio apirilaren 7ko 2/2016 Legearen, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoaren 32,2 artikulua arabera. Horretarako, bere eguneroko ohiko lanaldia 8:00etan hasiko da eta 15:00etan amaituko, aipatutako ordutegi horretatik kanpo bertaratzea eskatzen duten zereginak gorabehera.

Arduraldi eskusibo horrek berarekin batera darama Gizarte Segurantzako erregimen orokor-rean alta ematea, eta Udalak bere gain hartzea dagozkion enpresako kuoten ordainketa.

Alkate-udalburuaren karguan jarduteagatik jasoko diren guztirako ordainsariak otsailaren 11ko 4/2015 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoan toki administrazioa arrazionalizatzeko eta iraunkortasunerako neurriak aplikatzearen gaineko foru berezitasunak jorratzen dituenaren 4. artikularekin bat. Kontzeptu horren urteko zenbateko gordina 66.000,00 euro dira (hileko zenbateko gordina 4.714,29 euro dira, 14 ordainketatan banatuta). Zenbateko hori 2019ko udal aurrekontuko "soldata" izeneko 0100-9121-100.00 aplikazioan kargatuta ordainduko da.

Edonola ere, otsailaren 11ko 4/2015 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoan toki administrazioa arrazionalizatzeko eta iraunkortasunerako neurriak aplikatzearen gaineko foru berezitasunak jorratzen dituenaren 4.4 artikularekin bat, zenbateko hori eguneratu egingo da erreferentziatzat dituen Eusko Jaurlaritzako karguen ordainsariekiko proportzionalki.

Kontuan hartuta alkate-udalburuak karguaren jabetza hartu duenetik erabili duela bere eskubidea, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta ematearen eta ordainsariaren izendapenaren ondoreak 2019ko ekainaren 15tik aurrerakoak izango dira, izan ere, egun horretan hartu zuen benetan Laudioko Udaleko alkate-udalburu karguaren jabetza.

Urtean urteko Udal Aurrekontua Betearazteko Arauak jasota ekarriko ditu araubide eta arduraldi horrekin zerikusia duten gaiak, baita hurrengo urteetako aldarazpenak ere.

Edozein kasutan ere, adierazitako ordainsaria jasotzea bateraezina izango da administrazio publiko eta erakunde, organismo edo beraien menpeko enpresetako aurrekontuen kargurako beste ordainketa batzuekin, baita beste jaduera batzuk bideratzearekin ere, Administrazio Publikoen Zerbitzurako Pertsonalaren Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean zehaztutako terminoetan.

Halaber, alkate-udalburuak Laudio Udalaren zerbitzura diharduten langileen lan-baldintza berberak izango ditu gaixotasunen nahiz istripuen ondoriozko lizentziei dagokienez (2017ko otsailaren 27ko Osoko Bilkurak onetsitako akordio arautzailea, 6/2018 Legearen 54. xedapen gehigarriari lotuta) eta aseguratzeari dagokionez, azken kasu horretan, Udalak kontratatua duenarekin bat.

**BIGARRENA.** Erabakitzea Joseba Andoni Amondo Escuza lehen alkaterodeak arduraldi eskusiboa izango duela, behin azertu direlarik esleitu zaizkion erantzukizun, ordekaritza-eskumen eta Alkatetzak agindu diezazkion eginkizunen arabera urte osoan beharko den guztirako denbora. Horretarako, bere eguneroko ohiko lanaldia 8:00etan hasiko da eta 15:00etan amaituko, aipatutako ordutegi horretatik kanpo bertaratzeko eskatzen duten zereginak gorabehera.

Erabateko dedikazio horrek berarekin batera darama Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean alta ematea, eta Udalak bere gain hartzea dagozkion enpresako kuotak.

Alkateorde aritzeagatik jasoko duen urteko zenbateko gordina 58.855,00 euro dira (hileko zenbateko gordina 4.203,93 euro dira, 14 ordainketatan banatuta). Zenbateko hori 2019ko udal aurrekontuko "soldata" izeneko 0100-9121-100.00 aplikazioan kargatuta ordainduko da.

Edonola ere, otsailaren 11ko 4/2015 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoan toki administrazioa arrazionalizatzeko eta iraunkortasunerako neurriak aplikatzearen gaineko foru berezitasunak jorratzen dituenaren 4.4 artikularekin bat, zenbateko hori eguneratu egingo da erreferentziatzat dituen Eusko Jaurlaritzako karguen ordainsariekiko proportzionalki.

Urtean urteko Udal Aurrekontua Betearazteko Arauak jasota ekarriko ditu araubide eta arduraldi horrekin zerikusia duten gaiak, baita hurrengo urteetako aldarazpenak ere.

Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko altak eta aipatutako ordainsariaren hasierak 2019ko ekainaren 18a izango dute ondore-data eraginkor gisa.

Edozein kasutan ere, adierazitako diru ordainketa jasotzea batera ezinezkoa izango da Administrazio Publiko eta erakunde, organismo edo beraien menpeko enpresetako aurrekontuen kargurako beste ordainketa batzuekin, hala nola beste jarduera batzuk gauzatzea, Administrazio Publikoen Zerbitzurako Pertsonalaren Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean zehaztutako terminoetan.

Halaber, lehen alkateordeak Audio Udalaren zerbitzura diharduten langileen lan-baldintza berberak izango ditu gaixotasunen nahiz istripuen ondoriozko lizentziei dagokienez (2017ko otsailaren 27ko Osoko Bilkurak onetsitako akordio arautzailea, 6/2018 Legearen 54. xedapen gehigarriari lotuta) eta aseguratzeari dagokionez, azken kasu horretan, Udalak kontratatua duenarekin bat.

**HIRUGARRENA.** Erabakitzea Ander Larrínaga Saiz bigarren alkateordeak arduraldi eskusiboa izango duela, behin aztertu direlarik esleitu zaizkion erantzukizun, ordezkaritza-eskumen eta Alkatetzak agindu diezazkion eginkizunen arabera urte osoan beharko den guztirako denbora. Horretarako, bere eguneroko ohiko lanaldia 8:00etan hasiko da eta 15:00etan amaituko, aipatutako ordutegi horretatik kanpo bertaratzea eskatzen duten zereginak gorabehera. Erabateko dedikazio horrek berarekin batera darama Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean alta ematea, Udalak bere gain hartuz dagozkion enpresako kuotak ordaintzea.

Alkateorde aritzeagatik jasoko duen urteko zenbateko gordina 58.855,00 euro dira (hileko zenbateko gordina 4.203,93 euro dira, 14 ordainketatan banatuta). Zenbateko hori 2019ko udal aurrekontuko "soldata" izeneko 0100-9121-100.00 aplikazioan kargatuta ordainduko da.

Edonola ere, otsailaren 11ko 4/2015 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoan toki administrazioa arrazionalizatzeko eta iraunkortasunerako neurriak aplikatzearen gaineko foru berezitasunak jorratzen dituenaren 4.4 artikuluekin bat, zenbateko hori eguneratu egingo da erreferentziatzen dituen Eusko Jaurlaritzako karguen ordainsariekiko proportzionalki.

Urtean urteko Udal Aurrekontua Betearazteko Arauak jasota ekarriko ditu araubide eta arduraldi horrekin zerikusia duten gaiak, baita hurrengo urteetako aldarazpenak ere.

Gizarte Segurantzako erregimen orokorraren altak nahiz aipatutako ordainsariaren ondoreak 2019ko ekainaren 18an hasiko dira, data horretan jaso baitzuen bigarren alkateordeak izendapena, gerora, hirugarren alkateorde izendatuko zuen uztailaren 1eko 1.615 Dekretuaren bidez aldatutako 1.520 Dekretuaren bidez.

Edozein kasutan ere, adierazitako diru ordainketa jasotzea batera ezinezkoa izango da Administrazio Publiko eta erakunde, organismo edo beraien menpeko enpresetako aurrekontuen kargurako beste ordainketa batzuekin, hala nola beste jarduera batzuk gauzatzea, Administrazio Publikoen Zerbitzurako Pertsonalaren Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean zehaztutako terminoetan.

Halaber, lehen alkateordeak Audio Udalaren zerbitzura diharduten langileen lan-baldintza berberak izango ditu gaixotasunen nahiz istripuen ondoriozko lizentziei dagokienez (2017ko otsailaren 27ko Osoko Bilkurak onetsitako akordio arautzailea, 6/2018 Legearen 54. xedapen gehigarriari lotuta) eta aseguratzeari dagokionez, azken kasu horretan, Udalak kontratatua duenarekin bat.

**LAUGARRENA.** Erabakitzea Emakume eta Berdintasun Zerbitzuko nahiz Gizarte Ongizate Zerbitzuko zinegotzi ordezkariak arduraldi eskusiboa izango duela, behin aztertu direlarik esleitu zaizkion erantzukizun, ordezkaritza-eskumen eta Alkatetzak agindu diezazkion eginkizunen arabera urte osoan beharko den guztirako denbora. Horretarako, bere eguneroko ohiko lanaldia 8:00etan hasiko da eta 15:00etan amaituko, aipatutako ordutegi horretatik kanpo bertaratzea eskatzen duten zereginak gorabehera. Erabateko dedikazio horrek berarekin batera darama Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean alta ematea, Udalak bere gain hartuz dagozkion enpresako kuotak ordaintzea.

Emakume eta Berdintasun Zerbitzuko nahiz Gizarte Ongizate zerbitzuko zinegotzi ordezkari aritzeagatik jasoko duen urteko zenbateko gordina 58.855,00 euro dira (hileko zenbateko gordina 4.203,93 euro dira, 14 ordainketatan banatuta). Zenbateko hori 2019ko udal aurrekontuko "soldata" izeneko 0100-9121-100.00 aplikazioan kargatuta ordainduko da.

Edonola ere, otsailaren 11ko 4/2015 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoan toki administrazioa arrazionalizatzeko eta iraunkortasunerako neurriak aplikatzearen gaineko foru berezitasunak jorratzen dituenaren 4.4 artikuluekin bat, zenbateko hori eguneratu egingo da erreferentziatzen dituen Eusko Jaurlaritzako karguen ordainsariekiko proportzionalki.

Urtean urteko Udal Aurrekontua Betearazteko Arauak jasota ekarriko ditu araubide eta arduraldi horrekin zerikusia duten gaiak, baita hurrengo urteetako aldarazpenak ere.

Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko altak eta aipatutako ordainsariaren ondoreen hasiera Zinegotzi Ordezkaritza izendatua izan den egunetik izango da.

Edozein kasutan ere, adierazitako diru ordainketa jasotzea batera ezinezkoa izango da Administrazio Publiko eta erakunde, organismo edo beraien menpeko enpresetako aurrekontuen kargurako beste ordainketa batzuekin, hala nola beste jarduera batzuk gauzatzea, Administrazio Publikoaren Zerbitzurako Pertsonalaren Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean zehaztutako terminoetan.

Halaber, Emakume eta Berdintasun Zerbitzuko nahiz Gizarte Ongizate Zerbitzuko zinegotzi ordezkaritzaudio Udalaren zerbitzura diharduten langileen lan-baldintza berberak izango ditu gaixotasunen nahiz istripuen ondoriozko lizentziei dagokienez (2017ko otsailaren 27ko Osoko Bilkurak onetsitako akordio arautzailea, 6/2018 Legearen 54. xedapen gehigarriari lotuta) eta aseguratzeari dagokionez, azken kasu horretan, Udalak kontratatua duenarekin bat.

BOSGARRENA. Apirilaren 7ko 2/2016 Legearen, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoaren 33,1 artikuluan xedatutakoaren arabera, oposizioko zinegotziek eskubidea dute arduraldi eskusiboan jarduteko euren kontrol eta fiskalizazio-zereginetan. Horretarako, bere eguneroko ohiko lanaldia 8:00etan hasiko da eta 15:00etan amaituko, aipatutako ordutegi horretatik kanpo bertaratzea eskatzen duten zereginak gorabehera.

Eskubide hori erabiltzen duen oposizioko zinegotziak 52.969,50 euro gordin jasoko ditu urtean (hileko zenbateko gordina 3.783,53 euro izango dira, 14 hilean banatuta). Ordainsari horiek adostu ziren EUDEL-en Batzorde Exekutiboan 2017ko apirilaren 10ean, eta, halaber, xedatu zen kasu horretan aplikatu beharko dela gobernu taldean arduraldi eskusiboa duen eta gutxien kobratzen duen zinegotziaren ordainsaria, ehuneko 10 kenduta.

Zenbateko hori 2019ko udal aurrekontuko "soldata" izeneko 0100-9121-100.00 aplikazioan kargatuta ordainduko da.

Edonola ere, otsailaren 11ko 4/2015 Foru Arauan, Arabako Lurralde Historikoan toki administrazioa arrazionalizatzeko eta iraunkortasunerako neurriak aplikatzearen gaineko foru berezitasunak jorratzen dituenaren 4.4 artikuluekin bat, zenbateko hori eguneratu egingo da erreferentziatzen dituen Eusko Jaurlaritzako karguen ordainsariekiko proportzionalki.

Erabateko dedikazio horrek berarekin batera darama Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean alta ematea, Udalak bere gain hartuz dagozkion enpresako kuotak ordaintzea.

Urtean urteko Udal Aurrekontua Betearazteko Arauak jasota ekarriko ditu araubide eta arduraldi horrekin zerikusia duten gaiak, baita hurrengo urteetako aldarazpenak ere.

Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko alta eta aipatutako ordainsariaren ondoreen hasiera zinegotziak aipatutako eskubidea erabiltzen hasten den egunean hasiko dira. Apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 33. artikuluen 3. idatzi-zatiarekin bat, hauteskunde-emaitzei erreparatuta ordezkaritza handiena duen udal talde politikoari dagokio, hau da, EHBILDU udal talde politikoari.

Edozein kasutan ere, adierazitako diru ordainketa jasotzea batera ezinezkoa izango da Administrazio Publiko eta erakunde, organismo edo beraien menpeko enpresetako aurrekontuen kargurako beste ordainketa batzuekin, hala nola beste jarduera batzuk gauzatzea, Administrazio Publikoaren Zerbitzurako Pertsonalaren Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean zehaztutako terminoetan.

Halaber, eskubide hori erabiltzen duen zinegotziak Laudio Udalaren zerbitzura diharduten langileen lan-baldintza berberak izango ditu gaixotasunen nahiz istripuen ondoriozko lizentziei dagokienez (2017ko otsailaren 27ko Osoko Bilkurak onetsitako akordio arautzailea, 6/2018 Legearen 54. xedapen gehigarriari lotuta) eta aseguratzeari dagokionez, azken kasu horretan, Udalak kontratatua duenarekin bat.

SEIGARRENA. Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Toki Araubidearen Oinarriei buruzkoaren 73.3 artikuluan eta apirilaren 7ko 2/2016 Legearen, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoaren 34. artikuluan xedatutakoarekin bat, eratu diren udal talde politikoei hileko 485,00 euroko zenbateko finkoa eta taldea osatzen duten zinegotzi bakoitzeko hileko 150,00 euroko zenbateko aldakorra dagokie zuzkidura ekonomiko gisa.

Talde politikoei zuzkidura horren kontabilitate espezifikoaren eraman beharko dute, eta Udalbatzaren Osoko Bilkuraren esku utzi beharko dute hala eskatzen zaien guztietan. Edozein kasutan ere, zenbateko horiek ezin izan dira erabili ez eta xederatu Udalbatzaren zerbitzurako langileei edozein motatako ordainketak egiteko edo ondare izaerako aktibo finkoak eratu ahal izateko moduko ondasunak erosteko ere ez.

Zenbateko hori 2019ko udal aurrekontuko "Udal Talde Politikoak" izeneko 0100-9121-481.15 aplikazioan kargatuta ordainduko da.

ZAZPIGARRENA. Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Toki Araubidearen Oinarriei buruzkoaren 75,3 artikuluan eta apirilaren 7ko 2/2016 Legearen, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoaren 32,4. artikuluan xedatutakoarekin bat, inolako arduraldirik ez duten Udalbatzako kideek (ez partziala, ezta esklusiboa ere), zenbateko hauek jasoko dituzte kide anitzeko organoetara bertaratzeagatik:

**A) OSOKORA BERTARATZEA:**

a) Eskuordetzarik ez duten zinegotziek: 700,00 euro zinegotzi eta Osoko Bilkura bakoitzeko, hilean 700,00 euro gehienez. (gehienez ere, 8.400 euro urtean).

b) Eskuordetzak dituzten zinegotziek: 950,00 euro zinegotzi eta Osoko Bilkura bakoitzeko, hilean 950,00 euro gehienez (gehienez ere, 11.400 euro urtean).

**B) TOKIKO GOBERNU BATZARRERA EDO OSOKO BILKURAKO GAIEN ETA MOZIOEN BATZORDE INFORMATIBO IRAUNKOR OROKORRERA BERTARATZEA:** 156,25 euro zinegotzi eta bertaratze bakoitzeko, hilean 156,25 euro gehienez (gehienez ere, 1.875 euro urtean).

Zenbateko hori 2019ko udal aurrekontuko "bertaratzeak" izeneko 0100-9121-239.00 aplikazioan kargatuta ordainduko da.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, Toki Araubidearen Oinarriei buruzkoaren 75,3. artikuluan erabakita datorrenarekin bat, bileretara joateagatik zenbateko horiek kobratu ahal izateko nahi-taezkoa izango da kasuan kasuko bileretara bertaratzea. Ondorioz, zinegotzi orok Osoko Bilkurara joateko duen betebeharraren ondoretarako baino ez dira kontuan hartuko aurkeztutako justifikazioak, izaera ekonomikodun gorabeherarik gabe.

Zenbateko horiek moldatu egingo dira ekitaldi ekonomiko bakoitzean Osoko Bilkuran hartzen diren erabakien arabera.

ZORTZIGARRENA. Joan-etorri, otordu, ostatu, eta abarregatik zinegotziek jasotzen dituzten egunsari edo dietak eta udal langileenak berdinak izango dira araubide eta zenbatekoei dagokienez, eta, edonola ere, zorrozki bete beharko dira Hitzarmenean gaiaz erabakita dauden xedepenak.

BEDERATZIGARRENA. Taldeentzako ordainsari-esleipen gisa adierazitako zenbatekoak nahiz organoetara bertaratzeagatik zehaztu direnak 2019ko uztailaren 8tik aurrera izango dituzte ondoreak.

**HAMARGARRENA.** Argitaratzea erabaki hau ALHAOn eta udaletxeko iragarki taulan, Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 75. Artikuluko 5. idatzi-zatian erabakita datorrena betetzeko. Halaber, abenduaren 9ko 19/2013 Legearen, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideei eta Gobernu Onari buruzkoaren 8. artikuluekin bat, erabaki hau argitaratuko da Audio Udalaren Gardentasun Atarian.

**HAMAİKAGARRENA.** Helaraztea erabaki hau interesdunei, Ekonomia eta Zerga Kudeaketa Zerbitzuari nahiz Antolakuntza Publikoaren eta Zerbitzu Orokorren Zerbitzuari, kudeatu eta bete dadin.

Laudio, 2019ko uztailearen 12a

*Alkate-udalburua*

*ANDER AÑIBARRO MAESTRE*